

## Agur Etxaide

Donostiar idazle ugariaren ilbarria irratiz entzun izan nebanean, tamaltasun aundiz goibeldu nintzan. Aspaldiko adiskidea neban, ba, Yon.

Guda-asteko aldi urdurietan ezagutu genduan alkar eta, arrezkero, adiskidetasunez jarraitu izan genduan.

Urte samingarri eta bildugarri areitan, euskalzaletasuna nogaz azaskau aurkitzea etzan izan erraza. Ba-nekian or-emen sakanatuta euskera-zaleak ba-zirana baiña, lau-aldetara begiratu bear izaten zan eta, zuur ibilli, iñogaz berbaz jardun orduko, salatarien batek *zeozer* entzun ez egian.

Emen, Gernika-aldean, guztiak euskaldunak izanarren be, ez neban ezagutzen euskera-zale benetakorik eta, alakoen baten, argitaratzen zirean euskal-liburuak erosten zituan, Yon Aldekozea, agin-atontzailleaz adizkide egin izan nintzan, neure agiñen atonketea zala-ta. Euskerearen arazua erabilli geroian geienetan, geure autuetan eta, aixe pai poza! Or-

duantxe erosi-barri eukan Etxaide'ren *Alos-Torrea* eleberria itxi eustan irakurteko. Pozarren irakurri izan neban eta eskerrak emonez idazleari idaztea otu ekitan. Ez nekian nor ez nungoa izan zatekean eren, eleberri politaren, egillea eta Zarautzeko *Itxaropena* argitaldariari idatzi neutsan, idazleari nire barri eldu ekion. Beingoan izan neban erantzupena eta batak-besteari idazten ekin ondoren, Deban alkartu izan giñan, igande batez, alkar ezagutu gengian.

A Donostiar uritarra eta ni Aiangiz'ko baserritarra, geure izkuntzeaganako maitetasunak adiskide sendo egin izan genduzan eta, aurrerantzean be alkarri idazten jarraitu genduan.

Aldi goibel aretan zain ibilli bearra izaten genduan larrapastaden bat egin ez gengian, arerioak erpear ezareteko gertu izaten zirean inguruan, ba. Yon'ek bere izan eban poliziakaz ostopoen bat eta, aldi baten, berari zuzenean barik beste ezagun baten bitartez idatzi bear izaten neutsan. Neu bere, baitegitik urten-barria nin-

tzan eta ondo zaintzen euskuezan urratzak.

Beste euskera-zale batzuk bere ezagutu nituan Etxaide'ren bitartez. Zaitegi'tar Yokin jaunak Guatemalan argitaratzen eban *Euzko-Gogoa*-ren barri bere arexek, Etxaidek, emon eustan eta berak bultzatuta asi izan nintzan aldizkari eder aretan idazten eta, baita, orduko *EGAN*-en idazten be.

Kristiñau ona ta abertzale zintzoa gunduan Etxaide; eta idazle ugaria. Eleberri ta abar liburu asko idatzi zituan baiña ez dot uste asko aittatua izan danik euskera-zaleen artean. Aren aldean idazle kaxkarrak direan asko jasoten dituez gaur edoieta-raiño... Politikakeria?

Idazkera gogortxua bai erabiltzen eban, nire eritxian, baiña oraingo mordoillu-zaleen euskera gaiztoaren aldean errez ulertzekoa genduan aren auskerea. Bai orixe!

Gizon kezkatia, bere lan batzuk bir-idatzi be egin izan zituan, lengoak gogoa beteten ez eutseelako.

Aldi baten, luzaro izan nintzan bere barri barik eta idatzi egin neutsan zetan zan jakin-guraz. Gutun goibel baizen itzela idatzi eustan, urrengo au iñostela: "Txarto naiabilk larri-aldiakaz; txikitan ikasi izan neioazan inpernuaren bildurra-ta ez ba-nituk, neure buruagazkoa egingo neiekek..." Arrituta itxi nenduan eta beingoan erantzun neutsan bere gogo moteldua edoretu ta bizkortu ekion eta, aurrerantzean ez eustan iñoz bere ezer aittetu izan, bere gogoko larri-aldietaz.

Aspalditik etzan aren lanik agertzen aldizkarietan eta, zeozer jazoten ekion susmoa ba-neban. Neure olerki-liburua be bidali neutsan eta ez eustan artu ebanin nere idatzi ba... Bere gexoaz ezetako gogorik ez, aurki.

Il-barria jakin eta urrengo igandean Meza bat atera eta entzun neban, aren, adiskide zintzo aren, arimearen alderako: Jainkoak beuko zeru ederrean.

Agur, Yon, "Egun aundiararte" Lizardi'ren bertso onen esangurea gogoratuz.

*Aurre-Aprai*z